

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

NEKAZARITZA SAILA

NEKAZARITZA GARAPENERAKO ZERBITZUA

Arabako Bilar aldeko ureztatzea hobetzeko proiektua

“Arabako Bilar aldeko ureztatzea hobetzeko proiektua”, “Reñanilla” ureztatzaileen elkarteak sustatua, Bilarko, Guardiako Kripango eta Lantziegoko udalerrietan kokatzen da.

Proiektuaren helburua hau da: Bilar aldea ureztatzea hobetzeko beharrezkoa den banaketa-sareaz hornitzea, negu-udaberri aldian hurbileko hiru errekastoren jariatze-uren baliabide hidri koez baliatuz, eta horiek bi erregulazio putzutuan biltzea, uda aldean erabiltzeko.

Honako hauek dira proiektuan jasotzen diren jarduketa nagusiak:

- San Ginés, Pisa eta La Uneba errekaetatik jariatze-urak hartzea bederatzi lekutan.
- Bi erregulazio putzu egitea (Tejería eta Malharina), ur horiek aldi baterako biltzeko eta ondoren uda aldian erabiltzeko, grabitatez.
- Ureztatze honetako banaketa-sarea instalatzea Reñanilla ureztatzaile elkarteko kideen jabetzako finketan, nagusiki Bilarko udalerrian, baina Lantziegon ere bai.

Tejería putzua betetzeko, San Ginés errekan bi ur-hartze eta Pilas errekan hiru ur-hartze proiektatu dira; Malharina putzua betetzeko, La Uneba errekan lau ur-hartze egitea proiektatu da, eta ura lehenengo putzutik bigarrenera eramán ahal izango da, garaiera handiengan dagoena betetzen denean. Aldatu da erreketa ur-hartze obren diseinua, isurketa-espain bat sortuz, ur-hartzetik pasatzen den ur guztiaren ehuneko 20 den ur emari ekologikoa pasa dadin.

Tejería putzuak 102.625 m³-ko edukiera du eta aurreikusita dago 3,21 ha-ko aldi baterako azalera eta 2,13 ha-ko azalera iraunkorra izango duela. Malharina putzuak 298.917 m³-ko edukiera du, eta aurreikusten da 6,61 ha-ko aldi baterako azalera eta 4,99 ha-ko azalera iraunkorra okupatuko duela. Putzu bakoitzerako balbula-etxola bat proiektatu da, ureztatze-sarearen lerroan iragazkia duena.

Ur-hartzeetara eta erregulazio putzuetara iristea, landa-bideetatik eta laborantza-finketatik egiten da.

Proiektuak 600 hektareako ureztatze-azalera aurreikusten du, eta 56.565,12 metroko trazadura izango du, banaketa-sareari dagokionez. Horri gaineratu behar zaio 11.353,97 metroko eroanbidea, ur-hartzeetatik ura biltzeko bi putzuetaraino. Hasierako dokumentuak adierazten duenez, banaketa-sarearen trazadura bideen ertzei eta lurzatiei mugei jarraituz egin da.

Banaketa-sarearen ureztatzea grabitatez, ihintzaduraz eta tantaka egingo da. Horretarako, ur-ahoak edo ureztatze-hartuneak jarriko dira (294, guztira), eta horrela, higadura arriskurik gabe, ehuneko 12 inguruko malda duten mazelak ureztatu ahal izango dira.

Ingurumen eraginaren ebaluazioa igarotzea.

Proiektu horrek Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen duen ohiko ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedura izan behar du.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko urtarrilaren 27an, ingurumen eraginaren azterlanaren irismena zehazteko.

Sustatzaileak ingurumen eraginaren azterlana egin du, eta eskatzen du ingurumen eraginaren ebaluazioaren prozedurari jarraipena ematea. Hala, bada, proiektuak jendaurrean jartzeko izapidea igaro behar du, 21/2013 Legearen 36. artikuluan ezarritako eran (21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioari buruzkoa). Beraz,

Ebazten dut

“Arabako Bilar aldeko ureztatzea hobetzeko proiektua” jendaurrean jartzea. Honako hauek dira proiektua osatzen duten dokumentuak:

- Arabako Bilar aldeko ureztatzea hobetzeko 2. urratsaren proiektua. Memoriari buruzkoa da. Zuazo Ingenieros SLk idatzita.
- Arabako Bilar aldeko ureztatzea hobetzeko proiektuaren eranskina. Ur-hartzeen separatari buruzkoa da. Zuazo Ingenieros SLk idatzita.
- Arabako Bilar aldeko ureztatzearen hobekuntzari erantsitako proiektu aldatua. Putzuei eta ur-bilketei dagokie. Zuazo Ingenieros SLk idatzita.
- Ingurumen inpaktuaren azterketa (2022ko apirila). CRN Consultora de Recursos Naturales, SL.
- Proiektuak okupatzen duen eremuko Europar Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten karakterizazioa. CRN Consultora de Recursos Naturales, SL.

Agiriak eskura egongo dira aztertzeko, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza, 4-2 eskuina), eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren bulegoetan (Diputazio kalea, 13, behea), Gasteizen; bai eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ere: <https://irekia.araba.eus/es/catalogo-informacion-publica>. Dokumentazioa aurkitzeko, sartu “19-109” bilatzailean.

Interesatuak alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5, 01001, Gasteiz), 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari edo Nekazaritza Zuzendaritzari zuzendu ahalko zaizkio, bata zein besteari.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 1a

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

MARÍA NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA